

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko maiatzaren 19a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Leitza • Mikel Urdangarinen gaurko kontzertuak hasiko du hamar eguneko Kultur Astea

Jaione Apalategi • «Onuragarria izan daiteke liburua euskaraz plazaratu izana»

Antigoaleko gauzen azokatxoa



• UXUE MONTERO

Hilean behin Iruñeko
San Jose plazan
Arkakuso Onen Merkatu
Ttikia paratzen dute.
Antigoaleko gauzak

jartzen dituzte salgai, baita bigarren eskukoak ere. Duela urte eta erdi hasi ziren egiten




• UXUE MONTERO

merkatua, baina hil bakoitzeko lehen larunbatean geroz eta jende gehiago urbiltzen da arkakusoenera. Behintzat San Jose plaza lasaia ezagutzeko parada eskaintzen du merkatu ttikiak.

Bera • Ginekologia kontsultaren esperoan

Osasunbideak zerbitzua martxan paratuko duela jakinarazi du

Uxua Emakume Taldeak Beran Bortzirietarako ginekologia zerbitzua paratzeko eskaria egin zion martxoan Osasunbideari. Apirilaren 5ean Osasunbideatik telefono bidez eskaria onartu zutela jakinarazi arren, oraindik ez da bertzelako pausorik eman.



Emakumeentzako ginekologia zerbitzua ustez Berako Osasun Etxean paratuko dute.

• TTIPI TTAPA

ORAIN URTE GUTI PARATU zuten Elizondon Cofes-Haizea ginekologia zerbitzua. Ordura arte, Baztango, Male-rrekako eta Bortzirietako emakumeek Iruñera edo Irunera joan behar izaten zuten ginekologoarengana. Gerora, baina, Elizondoko zerbitzuak murrizketak izan zituen, eta gaur egun, arazo ugari dago, eskualdeko emakume anitzek erabiltzen baitu zerbitzu hori, eta denbora tarte handia pasatu behar izaten baitute ordua eskatzen dutenetik medikua-renera joan bitarte.

Arazo hori gainditze aldera —gainera, kontuan hartu behar da Bortzirietako emakume anitzek autorik ez dutela, eta garraio publikoak ere ez duela laguntzen—, Berako Uxua Emakume Taldeak Bortzirietako

ko emakumeentzat Berako Osasun Etxean ginekologia zerbitzua para dezala eskatu zioten Nafarroako Gobernuko Osasun Sailari. Lehendabizi Elizondoko Cofes-Haizeara jo zuten. Han, baina, zuzenean Iruñera jo behar zutela erran zieten. Iruñean argibide handirik eman ez bazieten ere, Udalak eskatu behar zuela erran zieten.

Hala bada, eskaria Udalak egin zezan galdegin zion Uxua Emakume Taldeak Udaltzari. Berako Udaltzak aho batez onartu zuen gaia, eta Udalak berak ere eskaria igorri zion Osasunbideari.

Eskariak berehala izan

zuen erantzuna. Apirilaren 5ean, Osasunbideatik telefono bidez paratu ziren harremanetan Uxua Emakume Taldeko kideekin. Dei horren bidez, euren eskaera onartua izan zela jakinarazi zieten, eta luze gabe paratuko zutela zerbitzua martxan Bortzirietako emakumeentzat Berako Osasun Etxean.

Baina telefono bidezko harreman horretaz landa, ez da bertzelako agiririk iritsi, ez Berako Udalera, ez Uxua Emakume Taldera, eta ez eskualdeko osasun zerbitzuetara ere. Elizondoko Cofes-Haizea ginekologia zerbitzuan ere ez dute erabaki horren berririk jaso,

eta kontua oraingoz geldituta dago.

Gaiaren inguruan, beraz, telefono dei bat baino ez dute jaso Uxua Emakume Taldeko kideek. Kontsulta non ezarriko litzatekeen ere ez zieten zehaztu, nahiz eta ziurrenera ere Berako Osasun Etxean egokitu luketen horretarako tokiren bat. Horrek baino gehiago, hala ere, zerbitzua bera martxan paratzeak kezkatzen ditu emakumeak. Oraingoz bertze berririk ez dute, eta hurrengo asteetan erantzunik ez bada, berriz ere Iruñera joko dutela iragarri dute emakumeek.

→ Jon Abril

Artabia • Oilaga Rock 2000

HELDU DEN EKAINAREN 10ean Artabian egingen duten Oilaga Rock 2000ren aurrerapen gisa, bihar, 22:00etan, kontzertua izanen da Lizarrako gaztetxean Cuerno de Chivo, Aizkorra 47 eta Alcohol Jazz taldeekin. Duela hiru urte Lizarrerriko Allin ibarrean dagoen Artabia herriko gazteak Oilaga Rock izeneko jaialdia antolatzen hasi ziren, ibarreko gazteei kultur ekitaldiren bat eskaintzearen. Biharkoa, beraz, jaialdiaren aurkezpen kontzertua da. Ekainaren 10ean Fermin Muguruza-Brigadistak Sound System, Makako eta Italiako talde batek joko dute Artabian, gaztetxearen ondoko frontoian.

Artabian, 13 gazte bizi dira, eta asteburutan 30 bat. Allingo beste herrietako egoera antzekoa da. Duela zazpi bat urtetik honera 45 metro koadroko lokal bat gaztetxe moduan erabiltzen ari dira ibarreko gazteak. «Gaztetxea Artabiako kontzejuarena da» esplikatu du Artabiako Oskar gazteak, «eta zinegotziek bilera egin behar badute, gu ateratzen gara, eta bukatzen dutelarik, berriz barrura. Lokal irekia da. Kontua da normalean guk erabiltzen dugula».

«Bertako talde batzuk etortzen zirenekin batera jo nahi zuten, eta gau berean bospasei taldetako kontzertu egin ezin zitekeenez, Lizarrako gaztetxeoekin moldatu ginen biharkoa egiteko» dio Oskarrek kontzertuaren inguruan.

→ Asier Azpilikueta

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Kuban, Habana hirian hain zuzen ere, egoteko parada izan nuen duela 7 urte. Han bizikletaren presentzia sentitu nuen eta baita logikaren bultzada ere: zer ote da hiri barrenean mugitzeko metodorik onena, kontuan hartuz legokeen ikuspegi oro? Bi gupil, kate bat eta abarrekoak.

15 kilometroko perimetroan (laua oro har) bizikleta lagun maitagarria da. Arazo nagusia, negozioa: autoak.

Orokorturiko mundu honen jabeak multinazionalak dira. Hauetako garrantzitsuenen zerranda egitekotan empresa automobilistikoak agertzen dira boteretsu raso. Nafarroako mapa industrial kolore-bakarrekoari so egitea bertzerik ez dugu. Ez da kasu bakarra, tamalez.

Autoa

Ez dut ene argudioen artean autoaren aldekorik sartuko. Egon badaude, gutxi eta ilunak, egozentriko, ergel, erosokeriazkoak, eta funts gabe bezain merezimendubakoak.

Ekar dezagun pasadizoak: batzuetan gertatu bezala, gaur kirol lehiaketa bat egiten ari zen hiri zahar honetan. Berau egin ahal izateko zenbait karrika, bide, bidegurutze eta antzekoak zabalik zeuden, baina autoendako itxita zegoen (Normalean erraten da karrika itxi dela, gezur partzial eta galanta delarik: autoendako itxita izaten dira, baina zabalik oinezko eta txirridulariendako). Kotxeendako asmatua den karrika zabal batean trafikoa geldirik zen. Kotxedun haserretuen muturren aitzinean kirolzaleak iragaten ziren, arnasestuka gehie-

nak eta izerdi patsetan guztiak. Auto ilara ederra ari zen multzotzen, eta auto kopurua igo ahala kotxedunen autohaserrea areagotzen zen. Bat, hiru, hamar... ehunka klaxon batera, zabor akustikoa lau haizeetara. Une horretantxe imajinatu dut kotxerik gabeko errealitatea: espazioa ikaragarri handitzen da tupustean: espaloiak zabaltzen dira, umeak karrika erdian pilotari ostikadaka, lasaitasun anderea dabil hiri osotik, inbertsioak zera interesgarriagoetara bideratzen dira, txorien txio-txioa aditzen dugu aspaldiko partez, arnasak eskertzen digu egoera berria, beldurra uxatzen dugu adinduen artean batik bat, belarraren aroa dator... Imajinaziotik errealitateara garamatzen zubia ekintza da.

Leitza ●

Hamar eguneko astea

Gaur hasiko da Kultur Astea, Mikel Urdangarinen kontzertuarekin

Leitzako Udalak antolatuta, gaurtik hilaren 28ra bitartean makina bat kultur ekitaldi egingen dute herrian Kultur Astearen karietara.



Mikel Urdangarinen kontzertuak hasiko du Leitzako Kultur Astea. ● EGUNKARIA

Mikel Urdangarin kantari bizkaitarrak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, zinematokian. Ekitaldi horrekin hasiko da Udalak antolaturiko hamar eguneko Kultur Asteari. Bihar, 10:00etatik aurrera, mendi ateraldia egingen dute gaztetxoek, eta arratsaldeko seietan Musika Eskolako ikasleek kontzertua emanen dute zinematokian.

Igandekoa egun handia izanen da. Herriko elkarte eta kultur taldeak 11:30ean bilduko dira kalejira jendetsua egiteko. Han egonen dira Azketa abesbatza, txalapartariak, txistulari banda, dul-

tzaineroak, Musika Eskolakoak, erraldoiak, Pilota Eskolakoak eta Aurrera dantza taldekoak. 13:00etan pilota partida izanen da, eta ondoren, 14:30ean, herri bazkaria egingen da udaletxeke karra-

pean. Arratsalde partean dantza taldeak eta animatzen den edozein herritarrek ingurutxo dantzatuko dute herriko plazan.

Astelehenean, 20:00etan, Ainara Roda eta bere taldeak piano kontzertua eskainiko dute zinematokietan. Asteartean Mendibil mendi taldeak diapositiba emanaldia eskainiko du, 19:30ean, zinematokian. Asteazkenean herriko edadetuak ipuinak kontatu behar zituzten, baina bertan behera gelditu da ekitaldi hori eta udazkenerako utzi dute. Ostiralean, Txan Handia magoaren ikuskizuna izanen da. Larunbatean, bertso afaria egonen da, eta igandean, hamar egunetako kultur astea bukatzeko, Eskulangileen XX. Feria egingen dute.

→ Asier Azpilikueta

Bihar, larunbatarekin, Errotxapea auzoko eguna ospatuko dute auzotarrek. Horretarako, egitarau zabala bezain alaia antolatu dute. 10:30ean, Xalbador plazatik kalejira abiatuko da etxezain, gaitari, txistulari, hankapalu, txalapartari eta dantzariekin. 11:15ean, etxezainek (kintoek) eta dantzari tikiak dantzatuko dute Arrias-

Iruñea

Errotxapeako eguna ospatuko dute bihar

ko plazan. Ondoren, hamaitaketa banatuko dute. 13:00etan, Maiteminduen parkean, herri kirolak eta herri azoka izanen da, euskararen aldeko murala pintatuko dute, auzoari buruzko

erakusketa paratuko dute eta antzinako modura jolasteko aukera izanen da. 14:00etan, herri bazkaria egingen dute. Errotaberri elkarteak. Bazkalostean, 17:00etan, poteoa egingen

dute tabernaz taberna, txaranga batek lagundurik. 19:30ean, akabera jaialdia hasiko da, Carbonillako patioan: M.D.O rock taldeak kontzertua emanen du, Txispi txamuska suzko ikuskizuna eskainiko da eta, bukatzeko, dantzaldia izanen da, Trikizio taldearekin.

→ Asier Azpilikueta



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Brun Burdinolako anaiak

Izurdiagako Brun Burdinolako arduradun Eduardo Brun ekarri du elkarriketaren txokora Sakanako Guaixe aldizkariak bere azken zenbakian. Ofizio horren inguruan mintzatu da gaztea Maider Betelu kazetariarekin, eta, ondokoak dira hark errandakoa: «Txikiak ginenetik hasi ginen Gerardo anaia eta ni burdinolan lanean, baina negozio hau gure familian gutxi gorabehera duela 350 urte hasi zen. Gure arbasoak Erriberan, Zaragozan... bizi izan ziren. Aitona gutxinaka etortzen jasi zen. Azkenean

aitak Izurdiagako tailerra erosi eta hemen gaude. Gauzarik politena gus-tatzen zaizunean lan egitea da, eta alde horretatik munduko zorterik handiena daukagu. Brun Burdinola familiako enpresa da. Bi anaiak lan egingen dugu eta hiru langile daukagu».

«Artisau lanak kalitate oso ona du baina dirua balio du, eta burdinola industrialak edo soldadurak konpetentzia handia egingen dio, eta askoz ere merkeagoa da. Hona bezero bat kalitate bila badator, nik artisau lana

eskainiko dio, eta ikusten badut arazoa diru kontua dela, dituen aukerak azalduko dizkiot. Guri gehienbat artisau lana eskatzen digute bezeroek. Artisau guztiak eskultore direla argi daukat».

«Euskal Herriko artisauen Arbaso elkarteak gaude. Egoitza Durangon dago. Sakanatik Anda anaiak eta gu gaude elkarte horretan. Oso ongi datorkigu, edozein arazo dugula hara jotzen dugu. Herrialde bakoitzean egoitza bat dago. Hemengoan esan daiteke Brun Burdinolan dagoela».



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Teniseko pilota

Futbolzalea ez izan arren bihar Osasunaren eta Teneriferen arteko partidua ikustera joango naiz. Ez dakit Anaia handia segitzen ote duzuen, baina saio horretan gertatutako gauza batekin parekatzen dut nik nire futbol-zelairatze arraro hau.

Anaia handia saioan, dakizue-nez, etxe baten barruan hamar lagun isolatu dituzte. Etxe txiki horretan sortu den harremanen mundua, amodio eta gorrotoak, esaten eta egiten diren gauzak, nahiko errealak bihurtu zaizkigu dagoeneko. Dena den, tartean, bi gauza arraro eta ezohikoak daude: bata isolamendua da, bestea behatzaileak izatearena. Behatzaileak telebistari begira gauden horiek gara. Isolamendua hesitik haratago zer gertatzen den ezjakintasunean datza. Pareta horiek mugatutako barruko errealitate ziztrin horretan hogeitapiko egun eman dituzte jada. Beraientzat Kanpoko Mundua erabat mutu dago. Honaino hitzaurrea.

Bada, harira, orain dela bi edo hiru egun, teniseko pilota bat, meteorito berde bat, erori zen bertako baratzean, etxe barruan. Pilotan hiru gauza zeuden idatzirik: Parisen kopa madarikatua jokatu duten bi futbol taldeen izenak, etxe barruko bikote bati animozko esaldi bat ("Silvia eta Israel, zuek zarete hoberenak!") eta beste bi partaideentzat iseka bana. Aztoraturik batzuk, pozik besteak, denek izan zuten pilota estralurtar hura eskuen artean. Harriduraz, malaostiaz eta pozez irakurri ahal izan zuten egunkari borobil xehe hura. Errealitatearen islada zikin, motz, ilun, ziren hiru kontu txiki oso, oso, urrutitik heldutakoak. Leize barruan kanpoko argiak eragindako itzalak, baina ez argia bera... eta abar, eta abar, guos guos. Bada: Sadar futbol zelaira kanpotik abiatuko den tenis pilota berri baten traza guztiak hartuak ditut nik. Kanpotik, oso urrutitik, beste errealitate batetik. Milaka futbolzale horien artean eroriko den tontolapiko berde borobil baten antzekoa irudikatzen dut neure burua. Hiru gauza txiki komentatu behar izatekotan hauek izango dira: Ansuategik Madrilgo Kopa irabaztera doa, nire katuak (Xaxa) saguzar bat harrapatu du berriz ere, eta azkenik: Gora udaberrian irartzartzen diren kaleko neskatxa ederrak! ●

Arkakuso onen merkatu ttikia

Hilean behin antigoaleko gauzak saltzeko azoka paratzen dute Iruñean

Hil bakoitzaren lehen larunbatean antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saltzen dituzte Arkakuso Onen Merkatu Ttikia deitu duten azokan. Merkatu sortu berria da, apenas daramatzen urte eta erdi, baina geroz eta jende gehiago hurbiltzen da arkakusoenera. Behintzat, San Jose plaza lasaia ezagutzeko parada eskaintzen du merkatu ttikiak.

Lehenbiziko aldiz etorri da azokara Mariano, Ejea de los Caballeros herritik, Zaragozatik alegia. Berak ez du antigoaleko gauzen dendarik. Bera gauza bitxiak bildumazalea da, eta, gehiegi dituela uste duenean, azoketan saltzen ditu. Horrela, etxean behintzat lekua egiten du. «Gauza bitxiak erosten ditudan heinean gauzarik arruntenak saltzen ditut», adierazi du Marianok. «Etxean 70 bat irratik izanen ditut. Horietako batzuk ekarri ditut azokara». Saltokian duen objekturik estimatuena ehun urtez goitiko burdinazko lokomotora bat da. «Atzealdetik metxa sartu eta tximinitik kea ateratzen zen», azaldu du. «35.000 pezetan saltzen dut. Gauzek prezioa dute, baina tratuaren aritzen dira erosleak, bestela ez litzateke azoka izanena», dio burumakur.

San Jose plazako Arkakuso Onen merkatu ttikia Alde Zaharreko auzo elkarteak antolatzen du Nafarroako Antikuarioen Elkartearen laguntzaz. Nafarroan ez dago horrelako beste azokarik.

Tratuaren merkatu ttikian

Antigoaleko gauzen munduan tratuaren aritzea berezko ezaugarria dela dirudi. Saltzaileei, baina, hori ez zaie askorik gustatzen. Pablo saltzailea, Bizkaiko Arrieta herritik etorria, azokaz azoka doa paperarekin zerikusia duen edozerekin tratuak egiten. «Zoritxarrez, liburuekin ere jendea tratuaren aritzen da», kexatu da Pablo. «Merkatu ttikiatiko ezaugarria da. Baina liburuari prezio zehatza jarri izaten diot saldu ahal izateko. Orduan, zer egin behar dut?, prezio handiago jarri?». Pablok dioenez, dendetan 1.800 pezetan saltzen den liburu 700 pezetan saltzen du berak. Bigarren eskuko, noski. «Eta oraindik merkeagoa nahi dute. Batzuk 500 pezetatik 400era jaitsi nahi dute. Horrelakoei nik erraten diet kafe bat hartzera gonbidatzen diedala. Ziur naiz Corte Inglesen ez luketela ezarritako prezioaren beherapenik eskatuko».

Hirugarren aldia da Javier Gil tuterarra arkakusoan azokara bertaraten dela. Tuteran antigoaleko gauzen denda eta lantegia

du. Berak dioenez, Tuterako dendan ere tratuaren aritzen dira erosleak. «Hori ez zait ongi iruditzen. Tuterako dendan prezioak jarri nituen hasieran, baina kendu behar izan nituen».

«Prezioak eskandalagarriak dira»

Javier Lahuerta bere herrikidearekin batera etorri da Iruñera. Antigoaleko denda du, eta barneko dekoratzailea da. «Tratuaren aritzea normala da kalean dagoen merkatu ttiki batean», erran du Lahuertak. «Baina batzuetan, prezioa asko jaisten badizute, edo tratuaren modu egokian aritzen ez badira, amorrua ematen dizut». Ondean duen mahai bat seinatu eta zera dio: «Mahaiaren prezioaren inguruan galdetu didate. 15.000koa dela erran diet eta astakeria dela erantzun didate. Merkatu ttikiaren ez dago pagotzarik, edo balore handiko objekturik. Azoka batean oso pieza ona salgai baldin badago, erosiko duen lehena ondoko saltokikoa izanen da». Saltokian duen objekturik gustukoena eskolako arbelatxo bat da. Ordu erdi eman zuen zaharberritzen, eta 3.000 pezetan saltzen du. «Garestia ote da?», galdetu du. «Zenbat balio du beste profesional baten denbora horrek. Ez gara inori lapurtzen ari».

Zera erran dio, haserre, ondok pasatu den emakume batek bere senarrari: «Prezioak eskandalagarriak dira. Batere baliorik ez duten gauzak dira gainera». Javier Gil tuterarrak komentatu duenez, mauka bila hurbiltzen da jendea azoketaraino. «Baina jakin beharko lukete anitzetan zaharberritzeak pieza bera baino gehiago balio duela». Arkakuso Onen azokara etorri zen lehen aldia ez zuen deus irabazi. Bigarrenean 15.000 pezeta poltsikoratu zituen. Eta hirugarren aldia, iragan larunbatean, 50.000 eskuratu zituen. «Etorri nintzen lehen egunean altzariak ekarri nituen, baina ikusi nuen trasteria soilik saltzen dela», azaldu du. «Hortaz, tresna ttikiak ekarri ditut orain, baita altzari guti batzuk ere».

Joan-etorria ordaintzeko gutienez

Fontellas herritik datorren Angel M^o Morenok ere gauza ttikiak eraman ditu azokara. Traste handi bakarra du, 1959ko La Jarana



II. Mundu Gerrako maskarak, azpilak, hauspoak, presio lapikoak, pitxerak, xehagailuak, lisaburdinak, aitzurrak, eskiak, aurpegirik gabeko Kristoa, «Esparragos Muerza» dioen kristalezko publizitate kartela, egurrezko golf makilak, elizako limosna kutxa... Edozein tresna zahar eta bitxi dago salgai Arkakuso Onen azokan.



→ Asier Azpilikueta

San Jose plazan

Arkakuso Onen Merkatu Ttikia paratu dute San Jose plaza ederrean. Iruñeko katedralaren eta Administrazio Publikoaren Institutuaren tartean dagoen plaza ederra bezain ezezaguna da. Azokako saltzaileak horretaz ohartu dira dagoeneko. «Merkatu hau oso ttikia da, eta jarri dute pasatzeko ez den leku batean», erran du Javier Gil tuterarrak. «Nik uste dut plazan denda dutenek antolatuta dutela, jendea erakartzeko».

Manolo Mosquerak antiagoaleko gauzen denda eta lantegia du San Jose plazan. Plazan horrelako bi denda daude. «Azoka dagoenean dendek apenas saltzen dugun ezer, denda eta azoka atentidzea ez baita erraza», adierazi du Javierren usteari erantzunez. «Ez da oso errentagarria azoka hor ondoan izatea. Baina kon-

tua da plaza hau ezagutaraztea. Alde horretatik azoka onuragarria da». Mosquerak dioenez, bera ziur da Iruñeko %80k ez dutela San Jose plaza ezagutzen. «Plaza ederra da, hagitx lasaia. Orainxe bertan entzuten den bakarra iturriko uraren soinua da. Azokak honaino erakartzen ditu iruindarrak».

Javier Lahuerta tuterarrak ere uste du lekua «arras ederra» dela. «Baina jendea ez da hemendik pasatzen», dio. «Leku komertzialagoa behar da. Gazteluko plaza ez legoke gaizki».

Dena den, Arrietatik etorri den Pablo saltzaileak dioenez, San Jose plazara geroz eta jende gehiago hurbiltzen da. «Iruñeko jendea azoka ezagutzen hasi da. Azokak gora egingen du. Azoka polita izanen da».

peñaren sanferminetako pankarta. «50.000 pezeta eskatzen ditut horrenatik. Edozein margolanek balio du hori». Egunean horren erdia lortzearekin konformatuko litzateke, joan-etorria ordaintzeko eta pixka bat gehiago. «Altzariak dituztenak 25.000 pezetarekin ez lirarteke inondik inora konformatuko», gaineratu du.

Balore handiko gauzak eraman ditu azokara Jose Castells iruindarrak. Napoleon III estiloko likorera bat edo 20 urteko telefono zentralita bat. Bere lehen aldia da merkatu ttikiara joaten dela. «Badakit leku hauetan hobekien saltzen diren gauzak merkeenak direla», esplikatu du. «Baina, tira, saltzen ez badituzte, gauzak bildu eta etxera noa goiz ederra igaro eta gero».

Fortun Bilbotik dator. Azokaz azoka bere furgonetarekin doazen saltzaile horietako

Arkakuso Onen merkatu ttikian dauden tratuariak ez dute askorik saltzen. Azoka ttikia da oraindik, Iruñeko bazterreko plaza batean dago eta joaten diren askok begiratu besterik ez dute egiten

bat da. Arkakuso Onen azokan beterranoetako da. Bera ere hagitx gusturagotzen da azokan, nahiz eta guti saldu. Saltzaileen arteko giroa oso ona da. Lehia handirik ez dute elkarrean artean. «Gure artean salerosketan aritzen gara», dio Fortunek. Batzuetan saltzen duzuna baino gehiago erosten duzu. Nik gaur dirua zor diet ondoko batzuei. Baina, tira, gaur erosi dudana beste nonbaiten salduko dut bihar. Eta erosi ditudan gauza asko niretako dira, bildumazalea bainaiz. Hemen gaude hau gustatzen zaigulako. Horregatik, oso giro ona dago. Nik honekin bizirauten dut. Ez dut dirurik, baina bai gauza bitxiak». Bildumazaleen hurrengo zita ekainaren 2an dago jarrita, larunbatarekin, San Jose plazan.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Baztandar xalo bat: Jose Azkarate Etxandi

Aunitz dira oixtian Josu Chuecak bere *El Nacionalismo Vasco en Navarra (1931-1936)* liburu ederrean eskaini dizkigunak, tartean, abertzaletasunaren historiaz gainera, EAJn izena emandakoen zerrenda interesgarria.



Serrenda horretan agertzen diren afiliatu baztandarren artean bada lehenengo Napar Buru Batzarreko kidea izaniko Jose Azkarate baztandar xaloa, zeregin hartan 1931-1933 urteen bitartean iraun zuena. Manuel Arantzadi, Pedro Agerrebere, Fortunato Agirre, Santiago Doxandabaratx, Luziano Iri-sarri eta Anibal Urmenetarekin batera. Baztanen berean, bertako Euzko Etxeko lehendakaria izan zen, baita Baztango Udalean EAJren izenean zinegotzia izan ere 36ko gerratearen aurretiko urteetan.

Jose Azkarate Etxandi 1878ko ekainaren 23an sortu eta 1957ko abuztuaren 14an hil zen Baztango Anizen. Zendu zelarik ohar nekrologiko luzanga agertu zuen *Idoya* sinatzen zuen batek *Zeruko Argia* kaputxinoen aldizkari berrituan. Bertan Azkaratek bere sorterriari zion maitasunarengatik egitako gorai-patzen zizkigun: «Bere sorterrria ta Baztan maite zuelakoz, alik obekiena jartzen saiatu zan. Ortarako baita ere bere aldetik al zuena jarri. 1910 urtean bere etxe bat erriarentzat utzi zuen ikastetxe bat jaso zezaten. Orain bi urte dirala —1955ean beraz— ikastetxe berria egin zuten. Ordu arte, bere etxea izan zan erriko ikastetxe-lekua. 1928 urtean bere soroetako bat erriarentzat trukutsean utzi zuen pilota-joku bat jaso zezaten. Mendiarte pilota-jokua. Eta ez ori bakarrik, baita bere sakeletik dirua jarri ere pilota-jokua jasotzeko, eta bear zan dirua

ortarako billatu ere bai. Erriarentzat oyal-garbitoki bat egiteko ere berak utzi zuen zelai bat. Aurrerago erri-rako urak ekarri zituen». Idoyak salatu bezala, Azkarate pilotazale amorratua izan zen, eta aski ugariak izan ziren gai horretaz orduko hainbat argitalpenetan atera zituen kronikak eta kolaborazioak, komunzki Juan de Ursua ezizenarekin. Bestalde, Nafarroako Pilota Federazioaren zuzendaritzan jardun zuen. Baztango Kirol Elkartearen sortzaileen artean izan zelarik.

Kirola ez zen, ordea, Azkaratek izkiriatzeko erabili zuen gai bakarra. Idoyari jarraikiz, «idazlari trebea zan, ez bakarrik pillota gaietaz, baita beste gai batzuk ere ibiltzen zituen, euskera, Euskal-erriko oiturak, euskal dantzak, mendi berritze gaiak, Baztan ibar-rako diru banakari-tza gaiak, eta abar». Idoyak ez digu esaten, berriz, zein argitalpenetan atera zituen Azkaratek bere lanak: pentsatzeko da argitalpen jeltzaletan idatziko zuela, eta halaxe izan zen, bada, Iruñean ateratzen ziren bai *La Voz de Navarra* egunkaria

etan eta bai *Amayur* astekarian fitean-bite bere idazkiak agertarazi baitzituen euskaraz zein erdaraz. 1931ko azaroaren 28ko *Amayur* aldizkariaren XXVII. zenbakian *Nere euskera mordollean* izenburuko ipuintxo propagandistiko eman zuen argitara, bere enantzuaren erakusgarri

aparta daitekeena: «Makil kozkor bat eskui eskuan artu, eta banua mendi aldera. Egun ederra dago. Eguzkia agertu da Abartango mendi tontorretik, eta goizeko otza autsi du bere dizdira beroekin. Beti aldapa gora, urbillen naiz Pagolako borda deitzen dan ardi borda batera, eta andik itzulik nere begiak, nolako adertasuna ikusten duten! Ala begira nagola ezin aspertzun ainhertze edertasun ikustatzen entzuten dut abesti polit bat, abots ederrian abestua. Abeslaria eldu da goitik bera ni nagon tokira urbilduz, gero eta obekiago entzuten zaizkiola abestia eta abestiaren itzak, Arpe-aldeko pago zaraka tartian dagonietik eldu baita. Ikusten ez dut bañan abotsatik gaztia dala du iduri. Alaxe da, ogei bat neurten aski zeralarik nere tokiraño, agertzen da mutilla zein ikustean arri biurtu ta gelditu bainaiz. Martintxo Borda-Zuriko semea, ogeita lau urteko mutil galanta. Ixildu da Martintxo: baita gelditu ere bidearen erdian, zer etorri ote zaio gogora? Alproka txiki bat bizkarrian darama, alprokatik xatua atera eta aztatik gil-gil edan aldi bat egiten du. Ni bidetik atera eta gelditu naiz pago-zaraka baten onduan Martintxok ez nau ikusten. An dago bada gure mutilla geldi eta ixil makila eskuan, gorputz liraña zuzen eta begiak zuzentzen dituala batian Almandozko Atxurdiñezko arrubi aldera, bertxian Mendaur aldera. Bere aurrian dauka Naparrako mendialde puska ederra, dana margo politaz fantzia, Baztan aldeko erri txuriak, belardi eta landa apañez inguratuak berako zelayetan, eguzkiaren urrezko dizderakin bazter guziak argituak. Zer ari da Martintxo?».



etorri ahalean

Patziku Perurena



Apunte hutsak, beren xurian

ARRAZOAIA, JAINKO ORDE: Ilustrazioak Jainko orde ipini zuen Arrazoaia, eta batzuek bitxiro sekularpena bezala ederretsi ohi dute filosofiaren teologizatze lirdinga. Baina ojo: Arrazoaia inon ez da Jainko dibertso eta librea, lehendik ongi ezarrita dagoenaren gainean segitzen baitu axtarka; hortaz, Jainkoa bezalaxe, bolada bateko jostailu libertigarritzat eman zaigu Arrazoaia ere.

ELIZA, ESTATUA... ETA NI?: Euskal Herrian beti familiarak, elizak, tradizioak agindu du; ez dugu izan subjektibitatearen edo kontzientzia autonomoaren tradizioarik. Modernitate klasikoaren tradizioarik, hots, izate ororen azken oinarri eta ekintza ororen iturri gisa finkatu zen NI zoli menpegabe horren tradizioarik. Autonomia izpiritual indibidualaren tradizioarik. Elizak esan digu beti zer zegoen ongi eta gaizki, eta Estatuak orain.

FRANTZI, ESPAINI... ETA NI?: Frantziak iraultza politikoa egin du, baina intelektualki erreakzionarioa izaten jarraitzen du barrendik. Hitzegiteko askatasuna lortu du, baina ez pentsatzeko askatasuna. Hortik atera nora goazen EHan. Benetan karlista edo liberal izatera eta unibertsoa salbatzera gabiltza, mundua bakean utzi eta proiektu ttiki batzuk etxean poliki poliki burutu ordez.

ZIBILDUAK... ETA NI?: Nork bere uste osoko zuen hari, balio erlatiboa gaineratu izanak, bereizten du jende zibildua larrekoagandik. Ni bitartekoa naiz, eta zibilduak nolana hori mozortzen duelarik ere «oro erlatiboa dela gaineratu behar hori», alferrikako petatxu huts izanen du beti; izan ere, larrekoak, betatxu alfer hori gabe egiten baitu zibilduak egiten duen gauza berbera. Gorriena: apenas estimatu eta ikasi dugun deus, zinezko larresenetik!

BURGESA, ILUSTREA... ETA NI?: Baina izpiritu burge-

sak, guziq erlatibatu zuen izpiritu ilustratuak, ezin nau jasan ni, bere erlatibo usteko absolutuaren moztorra salatzen baitut. Nolabait esan, demokrazia itxurosoaren azpiko monarkia absolutua. Eta horrek itsuski ematen gaur, jakina. Oi monarka ttiki autonomook, zeinen gaizki konprenitzen gaituzten beti!

HANDI TXIKIAK... ETA NI?: Askatasuna ttikian egoten da, edo deus besterik nekez egoten da ttikian, askatasuna baizen. Baina ez diot ondoegi ulertzen Pio Barojari gero, txikitatsun honentzat nola handitasunezko moral bat nahi duen Nietzsche tankerakoa: «despreciamos la mezquindad y la hipocresia y amamos todo cuanto sea grande, noble y fuerte». Horixe bageneuka, aze mauka!

BAROJA ETA NI? MIKEL: errepara dezagun: herriak —menpekoak, behartsuak, artaldeak, edo nahi duzunak— irabazi egin du, eta hau judutarkeriari esker gertatu bada, bapo! Orduan inongo herrik sekula ez du izan asmo sendoagorik munduko historian. Garbitu dute nobleza; gailendu da gixatxar arruntaren morala munduan. To euskal demokrazia, eta izorra hadi!

ZENTZA NADIN PITTIKO BAT: Behar beharrezko da gehiegikeria sokratikoa, arrazoizkoa, kulturalista bere neurritan ipintzea. Arrazoaia, Kultura ez da tresna erabilgarria baizik, bizitzaren osotasuna bereganatu nahi lukeen zatitito liluratua baizik ez. Pentsatzeko askatasuna sor-kari bikaina iruditzen zait, baina funtsean ez da bizitzaren bazterreko jostailu harroxka besterik. Laster parragarri irudituko zaigu kulturaren zerbitzura ipini izana bizitza. Espontaneitateak ez du ukatzen arrazoaia, baina far egiten dio honen uste osoari.

Ez, ez nazala, Jainko gehiegizkoak bezalaxe, Arrazoi gehiegizkoak ere, munduaz sobera arrotzu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Askatasunean bizi

Ba al da askatasunean bizi nahi ez duenik? Demokrazia hitzarekin gertatu den lege, adieraz mintzo direlarik askatasuna kaiolatzen ote dute? Madril muga duenak ez ditu guri erakutsitako pleguak azaleratuko.

Jaione Apalategi

NUPeko irakaslea

«Onuragarria izan daiteke liburuak euskaraz plazaratu izana»



● CRISTINA BERTAIN

soslaia

Jaione Apalategi urte mordoan darama Nafarroako Unibertsitate Publikoan lanean. Pedagogian doktore da, eta NUPeko Psikologia eta Pedagogia Departamentuko irakasle. Egun, Irakasletzako Haur eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetako ikasleekin ari da lanean, euskaraz.

Gainera, doktoretza ikastaro batean irakasle da, eta Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko dekanordea.

Unibertsitatekoa ez da Jaione Apalategi egiten duen lan bakarra, Jorge Oteiza Fundazio Museoko patronatuko bozeramaile ere bai baita.

Jaione Apalategi irakasleak osatu Hezkuntza-Erakuntza I: Oinarri teorikoak izenburuko liburuak argitaratu eman berri du Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP). Erakunde horrek euskaraz plazaratzen duen aurreneko lan zientifikoa da Apalategirena. Bere liburuak NUPen «bide berri bat» zabaldu duela uste du egileak, eta atzetik etorriko direla euskaraz egin ikerketa lan gehiago

NAFARROAKO UNIBERTSITATE Publikoak Iruñeko Arrosadia auzoan duen campusean hartu gintuen Jaione Apalategi astelehenean, plazaratu berri duen liburuari buruz hitz egiteko. Edukiari buruzko xehetasunak emateaz gain, lan hori euskaraz plazaratu izanak duen esanahiaz ere mintzatu zitzaigun NUPeko irakaslea. Psikologia eta Pedagogia irakaslea da Apalategi NUPeko Irakasletza Eskolan.

■ Zeintzuk dira zure liburuaren ardatz nagusiak?

Liburuaren edukia hiru ataletan banatuta dago; lehenengo atalean agertzen da zientzia honen bilakaera historikoa zein izan den; bigarren, bere

zientziatasunaren eraiketa prozesua nolakoa izan den; eta, hirugarrenean, gaur egun zein eremu erabili behar den zientzia honen nazioarte mailako alderaketa egiteko. Hirugarren zati honi pisu nabarmena eman diot, uste dudalako benetan gaur egun zientzia bezala erabiltzeko, esparru hau nahitaez menperatu behar dela, beste edozein herrialdetan bezala, eremu komun eta unibertsala edukitze-ko.

■ Nori zuzendutako liburuak da?

Unibertsitateko irakasle eta

ikasleei zuzenduta dago, eta bereziki, pedagogia, psikopedagogia eta maisu diplomaturatan lan egiten dutenei. Bigarren, Hezkuntza Administrazioaren arduradunei zuzendutako lana ere bada, kontseilaritiki hasi, aholkulari eta zuzendariak, heziketa egitarauen arduradunak... Zuzenduta dago, gainera, gizartean hezkuntzarekin harremana duten elkarte edo ikertzaileei. Hezkuntzarekin zer esanik duten guztiek erabil dezaketen liburuak da azken finean.

■ Zergatik erabaki duzu zure lana euskaraz argitaratzea?

Erabaki naturala izan da, ez dut dilemarik

izan. Zerbait egiteko garaia iritsi zait, eta lan hori euskaraz egitea ezinbestekoa izan da niretzat. Egia da gauza berria dela, egituren aldeko ahuleziagatik ez delako gure gizartean oraindik arlo askotara ailegatu euskararen erabilera. Ezina baztertu behar dugu, eta ahal dela sinetsi. Hori izan da nik egin dudana apustua.

■ NUPen euskaraz plazaratzen den lehen ikerketa liburuak da zurea.

Kontent nago hori dela eta, ez nigitik, niretzat erraza izan delako, baina kontent jartzen nau ikusteak gure unibertsitateak euskarazko liburu bat plazaratu duela, eta zoritxarreko euskararen inguruko alde bateko zein besteko argudio zital eta ezagutza faltakoa pitin bat, behintzat, baztertzeko balio izan duelako, eta askoren artean zerbait egiteko gaitasuna dugula erakutsi duelako. Nolabait, haize freskoa ekarri du liburuak gure unibertsitatara.

■ Zailtasunik izan al duzu unibertsitateak zure lana euskaraz plazaratzeko?

Ez, bat ere ez.

■ Euskararen egoera, hala ere, ez da oso ona NUPen. Zer iritzi duzu?

Egia da egoera ez dela batere ona, baina nik plazaratu duen liburuak egoera hori hobetzeko onuragarria izan daitekeela uste dut. Horrelako produktu bat edukitzeak hitzeko argudioak erabiltzen denborarik ez galtzen laguntzen digu. Unibertsitate batek zerbait egin behar badu, bere funtzioa da ezagutzaren esparru guztietan jakitunak izatea. Zientziak, edozein zientziak, garaian garaiko eta historiak eskatzen duen errealitate, behar eta kezken inguruan jardun behar du, eta hala ez bada, unibertsitatearen egoera bera da kolokan jartzen dena. Neurri batean, argudio sendo baterako hasiera bat da lan hau euskaraz plazaratu izana gure unibertsitatean. Egia da, hala ere, Euskal Herriko gainerako unibertsitateetan euskaraz plazaratzen den ikerketa liburu askorik ez dagoela.

■ Uste duzu, beraz, zure liburuak bide berri bat zabaldu duela NUPen. Alegia, etorriko direla lan gehiago atzetik?

Baietz uste dut, edo, hobeto esanda, sinesten dut eta sinestu nahi dut.

→ Edurne Elizondo

«Erabaki naturala izan da liburuak euskaraz idaztea, ez dut dilemarik izan. Zerbait egiteko garaia iritsi zait, eta lan hori euskaraz egitea ezinbestekoa izan da niretzat»



Nafar Kronika

Aitor Aroza

Endarlatsa-Behobia errepidea, ondare historiko-artistikoa?

N-121 Errepideaz aunitz solastu da azken garai hauetan. Halere, gehienbat Iruñetik Erriberara aldeko errepide tartean aritu dira orain arte, izandako istripuez, jasaten duen trafikoko kopuruaz, A-15 autopista debalde uzteaz... Iruñetik goitiko tartean deus gutti solastu da. Baina izan bada, eta hor ere trafikoa izugarria da, batez ere Belateko tunelak zabaldu zituztenetik. Aste honetan zabalduko dute Larrakaizko tunela Sunbillan, eta abudo Zozai eta Doneztebe arteko tartea moldatuko dute. Arazorik haundienak moldatuko dira, nonbait, baina Bortzirietara ailegatzen direnean bertze botila-lepo bat topatuko dute autoek eta batez ere kamioiek. Eta zer erranik ez Bera eta Behobia arteko errepide zatia. Hor, bi kamioi gurutzatzen direnean, gidari batek bertzearen hatsa sumatzen ahal du. Egunero-egunero, banazbertze 7.800 ibilgailu igarotzen da errepide estu horretatik.

Errepide zati hori moldatzeko aspaldi hasi ziren bilerak, baina, jakina denez, etxe aunitzako zakurra gosez hiltzen da. Izan ere, Endarlatsa eta Behobia arteko zatia, Gipuzkoako lurtean egon arren, garai batean Nafarroako Diputazioarena eta gaur egun Nafarroako Gobernuarena da, izatez. Eta jakin duzue zein harreman goxoak dauden Nafarroako Gobernuaren eta EAEko erakundearen... Kontuak kontu, Bortzirietako alkateak dira afera mugitzen gehien saiatzen direnak azken hogeitaz urteetan. Duela bispahiru urte, Gipuzkoako Diputazioko eta Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako sailburuak bilteza lortu zuten eta orain Nafarroako Parlamentuaren aitizinean agerraldia egin zuten joan den astean, eta Palacios kontseilariarekin bildu dira aste honetan. Kontua, lanak lehenbailehen hastea litzateke, bertzenaz, karretera hori abudo ondare historiko-artistikoa izendatuko dute eta ezin izanen da ukitu ere.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Barañain:** Metal Hammer musika klasikoko boskoteak kontzertua emango du gaur, 20:00etatik aurrera, udaltxeko erabilera anitzeko aretoan.
- **Zangoza:** Gaur, pop-rock lehiaketaren barnean, Sparky's Dream taldea Diagonal tabernan izanen da, 21:30etan, eta Txaiñas taldea Landa tabernan, 23:00etan.
- **Tafalla:** Peta Zeta taldea Gabalzeka tabernan izanen da gaur, 23:30ean.
- **Iruñea:** Gaur, 23:30etik aurrera, kontzertua izanen da Ciaboga tabernan, Dies-Irae eta Kain taldeekin.
- **Iruñea:** Ostegunean, Lau Behi taldeak Terminal tabernan joko du, 22:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Baiona:** Gaur, Oihana ikastolan, Sustrai Kolina, Amets Arzallus, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta eta Miren Artetxe izanen dira, 19:30etik aurrera.
- **Garraida:** Bihar Sustrai Kolina eta Amets Arzallus izanen dira herrian.

ANTZERKIA

- **Arantza:** Sambhu Teatro taldeak *Puffen mundua* taularatuko du bihar, plazan, 19:45ean.
- **Urdiaín:** Zapatak hondaturik antzezlan eskainiko du bihar Ten Pinpila pauxa taldeak, 20:30ean, frontoian.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Astelehenetik ostegu-

nera, 20:00etan, Erraldien Txokoan, mahai inguruak izanen dira egunero *Euskara, euskaroen garaian* zikloaren barnean.

- **Iruñea:** Asteazkenean, 19:30etan, Joseba Barriolak *Egoeratik izaerara* lana aurkeztuko du Zaldiko Maldikon.
- **Iruñea:** Ostegunean, 20:00etan, *Irak nazioarteko ordenaren soken kontra* gaiaren inguruan hitz egingen dute Zabaldin.

DANTZALDIAK

- **Bakaiku:** Muthiko Alaiak taldea frontoian izanen da bihar, 19:00etan.
- **Auritz:** Duguna taldea plazan

izanen da igandean, 12:45ean.

KIROLAK

- **Bazan:** Bihar Baztango VII. Mendi Ibilaldia egingen dute; Berroetan hasi eta bukatuko da (32 kilometro). Argibideak eskatzeko eta izena ematea, 948-581279 telefonoan (15:00 baino lehen).

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Angel M^a Presencio Nagoreren margolanak ikus daitezke Txantreako Auzotegin, hilaren 26 arte, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:30era.

- **Burlata:** Hila bukatu arte Koro Cantrabanaren argazki-erakusketa ikusgai dago kultura aretoan, astartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Karrikirik ikasleen pisuak euskaldunez betetzeko zerbitzua abiatu berri du. Hortaz, euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza, edo zure pisuan euskaldunendako lekua baduzu, zoaz Karrikirira (Xabier karrika, 2bis) edo hots egiezu (948-222589).



UXUE MONTERO

328

Iragan larunbatean, Olazko kiroldogian, hirurehun eta hogeita zortzi (328) kiloko harria igo zuen sorbalda gainera Mieltxo Saralegik. Inork ikusi ote zuen harria jaisten? Halako mutil puskek segundo guti behar izaten ditu harri telefonikoa altxatzeko. Baina harria lurrean uzteko tenorean bi lagun laguntza behar izaten du, bera ez baita horretarako gai. Argi dago Saralegirena harrijasotzea dela, munduko kirolaririk onena da zeregin horretan. Baina noizko harrijaistea?